

## Epea: 2021eko irailaren 30ra arte

### A) 2020-2021 ikasturtean beka eskatu zuen ikasleak:

- Tutoreak ikasgelan banatuko du bekako inprimakia.
- Berraztertu aurregrabaturiko datuak zuzenak direla.
- Inprimakiaren atzekaldean interneteko helbide bat aurkituko duzu, zeinetan zure bekaren eskaera balidatu dezakezun.
- Horretarako, ikaslea (adinduna bada) edo aurreko ikasturtean tramiteak egin zuen aita/ama edota tutore legaren NANA (eta iraugitze-data) beharko duzu.
- Prozesuan derrigorrez eskatuko dizute:
  - Ematen badizute, beka jaso ahal izateko kontu zenbaki bat. Beka ebazpenaren ondoren ikastetxeak sartzea nahi baduzu, ikastetxeari baimena emateko laukia markatu beharko duzu.
  - Prozesua amaitzerakoan baliozkotu izanaren egiaztagiria bidaliko dizuten posta elektronikoko helbide bat.
- Aurkezteko dokumentazioa: Eskabide-orrian jasotako dokumentaziotik 2020-2021 ikasturtean aztertutako egoerarekin alderatuta aldatetak justifikatzen dituzten dokumentuak bakarrik aurkeztu beharko dira. 2020. urtean bizikidetzta-unitatean lortutako diru-sarrereri dagokienez, Hezkuntza Sailak zerga-administrazioen bidez lortu ezin dituen diru-sarrera guztien egiaztagiriak bakarrik aurkeztuko dituzte (Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo tributatzen dutenean, PFEZren Adierazpena edo beste edozein).
- Prozesu hau egiteko ikastetxeko mediateka daukazu bere ohiko ordutegian irekita. Mendizorrotzaren kasuan, Nieves Canora joan zaitezke.
- Laguntza behar baduzu, Idazkaritzagatik pasa zaitezke ere.

Gogoratu hitzordua eskatu behar duzula  
helbide honetan:  
[www.egibide.org/citaprevia](http://www.egibide.org/citaprevia)

### B) Aurreko ikasturtean diru-laguntzarik eskatu EZ zuen ikasleak:

- Bekako lehenengo parte egin dezakezu [www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net) web-orriaren zehar eta bekaren erregistroa idazkaritzan egingo dizugu.
- Campuseko mediateka daukazu bere ohiko ordutegian irekita. Mendizorrotzaren kasuan, Nieves Canora joan zaitezke.
- Laguntza behar baduzu, Idazkaritzagatik pasa zaitezke ere.

Gogoratu hitzordua eskatu behar duzula  
helbide honetan:  
[www.egibide.org/citaprevia](http://www.egibide.org/citaprevia)

### Ebazpenen jakinarazpenak eta laguntzen ordainketa

Behin-behineko eta behin betiko ebazpenaren jakinarazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean argitaratuko da; <https://euskadi.eus>

Ohole horretan argitalpenak egiten direnean, **sistemak jakinarazpen bat bidaliko die interesdunei SMS mezuen bidez edo posta elektronikoko mezuen bidez.**

Alegazioak (15 egun) edo gora jotzeko errekursoak (1 hilabete) aurkezteko epeak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira zenbatzen.

Laguntzen ordainketa behin bakarrik egingo da behin betiko ebazpena eman eta hilabeteko epean.

**Ikastetxetik, beka-eskabidean adierazitako mugikor zenbakiaren edo posta elektronikokoaren zain egotea gomendatzen dizuegu, ebazpenen jakinarazpenen jakinaren gainean egon ahal izateko**